


Maiatzaren 17a, Homofobiaren aurkako Nazioarteko Eguna

Gazteen %14k errezeloak dituzte homosexualei dagokienez.

[Gazteen Euskal Behatokiak](#) [Gazteen argazkiak 14](#) ikerketatik ateratako 2010eko datuak aztertu ditu. Horien arabera, 15 eta 29 urte bitarteko gazteen %14ri homosexualak (gay edo lesbianak) auzokide izatea axolako litzaike.


Homosexualen arbuioak behera egin zuen 1990etik 2000ra, baina gora egin du berriz ere azken urteotan, duela hogeitun urteko mailetan kokatu arte.



Gizon gazteek emakumeek baino errezelo handiagoa dute homosexualekiko (%15 eta %12, hurrenez hurren). 25 urtetik gorakoek gaitzespen-maila txikiagoa adierazten dute homosexualekiko, adin horretara heltzen ez direnek baino, aldeak txikiak badira ere.

Sexuaren eta adinaren ziozko aldeak 2000n ere ageri ziren; hau da, gaitzespen-maila handixeagoak gizonen eta 26 urtetik beherakoen artean.

Bestalde, Gazteen Euskal Behatokiak [Prospekzio Soziologikoen Kabinetearekin](#) batera egindako [Euskadiko gazteak 2008](#) ikerlaneko datuei jarraiki, 15 eta 29 urte bitarteko gazteen %86 sexu bereko pertsonak elkarrekin ezkontzearen aldekoak dira eta %78 sexua legez aldatu ahal izatearen aldekoak.



Gazteen ehuneko handiagoa dago sexu bereko pertsonen arteko ezkontzaren alde EAEn, [Espainian](#) baino: %86 eta %77, hurrenez hurren.

Aldeko iritzia hein handiagoan adierazten dute emakume gazteek gizonek baino. Ideologikoki ezkertiarrek direnak ere aldekoagoak dira euren burua zentrukotzat edo eskuindartzat jotzen dutenak baino.

